



EAPN EUSKADIK EUSKO LEGEBILTZARREKO TALDE PARLAMENTARIOEI EGINDAKO PROPOSAMENA, AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ETA ESTATUKO PRESTAZIOAK (DSBE ETA BGD) ALDI BEREAN EDO GAINJARRITA JASOTZEAGATIK SORTUTAKO ZORRAK EBAZTEKO, BALDIN ETA EGOERA HORI IZAPIDE-ATZERAPENEN, ADMINISTRAZIOAREN ADOSTASUNEZEN EDO PRESTAZIOEN HARTZAILEEI EGOTZI EZIN ZAIZKIEN BESTE ARRAZOI BATZUEN ONDORIOZ GERTATU BADA.

---

#### 2026KO EKAINA

EAPNren iritziz, Euskadik Asturiasen bultzatutakoaren antzeko neurri bat ezartzea aztertu beharko luke autonomia-erkidegoko eta estatuko prestazioak (DSBE eta BGD) aldi berean edo gainjarrita jasotzeagatik sortutako zorrak ebazteko, baldin eta egoera hori izapide-atzerapenen, administrazioaren adostasun-ezen edo hartzaileei egotzi ezin zaizkien beste arrazoi batzuen ondorioz gertatu bada.

Helburua ez da iruzurrezko jokabideak edo nahita egindako ez-betetzeak barkatzea, baizik eta bidezkoa, proportzionatua eta efizientea den irtenbide bat ematea zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen, oinarritzko premiak asetzeko prestazio bat jaso dutenean eta beste Administrazio batek, bien bitartean, prestazio bateragarri, ordezkio edo koordinatu bat aitortu, ebatzi edo atzerapenez ordaindu duenean.

Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindaria izan zen diru-sarrerak bermatzeko sistema propio bat ezartzen. Ildo horretan, Euskadik badu gaitasuna Euskadiko pertsona eta familia askori bidegabeki eragiten dien arazo bati erantzuteko, kontuan hartuta pertsona horiek ez dutela inolako erantzukizunik izan sortutako egoeran.

Horregatik, bidezkoa litzateke Euskal Autonomia Erkidegoan kasu horietarako barkamen-neurri selektibo bat ezartzea. Gainera, neurri horrek efizientzia ekarriko lioke Lanbideri, eta ondorio positiboak izango lituzke EAEko gizartearentzat. Helburua ez da sistemaren kontrol-mekanismoak ahultzea, baizik eta kontrol hori adimentsuagoa, proportzionatuagoa eta gizatiarragoa egitea.

Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltzarra osatzen duten talde politikoei eskatzen diegu proposamen hau aintzat hartzeko eta Euskadin arazo hori konpontzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

#### **EAPN – Euskadi**

Harrobia plaza 4, 3. solairua. 48003 Bilbo

Tel.: 94-4161884 - Helb. el.: [coordinacion@eapneuskadi.net](mailto:coordinacion@eapneuskadi.net)

IFK: G-48900336. Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroko zk.: FD/B/00084/1997

## AURKEZPENA:

Asturias lege-proposamen bat izapidetzen ari da, bertako oinarrizko gizarte-laguntzako soldata (SSB) eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGD) aldi berean jaso dutenei zorra barkatzeko.

Asturiasko Gobernuak argi berdea eman dio gizarte-laguntzako soldataren zorrak ebazteko prozesuari (<https://actualidad.asturias.es/-/cgsalariosocial0508>).

Gobernu Kontseiluak, gaur bertan, ezohiko bilera telematiko batean, aldeko iritzia eman dio talde parlamentario sozialistak eta Convocatoria por Asturias talde parlamentarioak aurkeztutako lege-proposamena aintzat hartzeari. Proposamenaren helburua gizarte-laguntzako soldata bidegabeki jasotzeagatik sortutako zorrei konponbidea ematea da, zorrak Administrazioari egotz dakizkiokeen kasuengatik sortu direnean. Gobernuaren oniritziarekin, lege-proposamenak Asturiasko Batzar Nagusian izapidetzen jarraitu ahal izango du. Arazoaren jatorria bizitzeko gutxieneko diru-sarrera indarrean sartzearekin lotuta dago. Estatuko prestazio hori ekonomikoki zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak eta familiak babesteko sortu zen, eta, oro har, autonomia-erkidegoetako gizarte-laguntzako soldata ordeztara etorri zen. Prestazio batetik bestera igarotzean babesgabetasun-egoerarik gerta ez zedin, Asturiasko Printzerriak aldi baterako mantendu egin zuen bere gizarte-laguntzako soldata.

Autonomia-erkidego guztietan jazo dira horrelako arazoak; Euskadin ere bai. Lanbide bidegabeko kobrantza batzuk ordaintzeko eskatzen ari da pertsona askori: ez iruzurrez edo fede txarrez jokatu dutelako, BGDaren ebazpenean atzerapenak egon direlako baizik.

Horrek ondorioak ditu, pertsonengan ez ezik –kontuan hartuta zaurgarritasun-egoeran daudela–, Lanbiden bertan ere, erakundeak baliabideak jarri behar baititu kobrantza horiek izapidetzeko, besteak beste ordainketen zatikatzeko-sistema aplikatuz.

EAPNren iritziz, Asturiasen bultzatutakoaren antzeko neurri bat ezartzea aztertu beharko luke Euskadik, autonomia-erkidegoko eta estatuko prestazioak (DSBE eta BGD) aldi berean edo gainjarrita jasotzeagatik sortutako zorrak ebazteko, baldin eta egoera hori gertatu bada izapide-atzerapenen, administrazioaren adostasun-ezen edo hartzaileei egotzi ezin zaizkien beste arrazoi batzuen ondorioz.

Helburua ez da iruzurrezko jokabideak edo nahita egindako ez-betetzeak barkatzea, baizik eta irtenbide bidezko, proportzionatu eta efiziente bat ematea zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen, oinarrizko premiak asetzeko prestazio bat jaso dutenean eta, aldi berean, beste administrazio batek prestazio bateragarri, ordeztako edo koordinatu bat aitortu, ebatzi edo atzerapenez ordaindu duenean.

Asturiasen erreferentzia bereziki egokia da, antzeko logika batetik abiatzen delako: BGDa ezartzeak gainjartze-egoerak eragin zituen prestazio autonomikoarekin –oinarrizko gizarte-soldatarekin–, eta horrek, ondoren, bidegabeki jasotako zenbatekoen erreklamazioak ekarri zizkien hainbat pertsonari; askotan, fede onez jardun zutenei eta egoeraren erantzule ez zirenei. Ildo horretan, Asturiasko Gobernuak berak aldeko iritzia eman dio Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta prestazioak bidegabeki jasotzearen ondoriozko gizarte-soldataren zorrak ebazteko lege-proposamen bat izapidetzeari.

## ARAZOA EUSKADIN

Euskadin ere antzeko arazo bat dago, DSBEaren eta BGDaren arteko harremanetik eratorritakoa. Sortutako zor asko ez dira iruzurraren, ezkutatzearen edo fede txarreko jokabideen ondorio, baizik eta BGDaren ebazpenean izandako atzerapenen, atzeraeraginezko ordainketen, administrazioen arteko informazio-desadostasunen edo diru-sarrerak bermatzeko bi sistemen koordinazioan izandako zailtasunen ondorio.

Horrek eragin duen egoera hau da: lehendik zaurgarritasun-egoeran zeuden pertsonak eta familiek zor-erreklamazioak jaso dituztela. Egoera horrek ziurgabetasuna, estres ekonomikoa eta karga burokratiko gehigarria eragin dizkie baliabide nahikorik ez edukitzeagatik prestazioen onuradun diren familiei.

Gainera, arazoak ez die prestazioen hartzaileei bakarrik eragiten. Lanbiderentzat ere karga nabarmena dakar, erreklamazio-espedienteak kudeatu, komunikazioak eta alegazioak izapidetu, konpentsazioak eta zatikatzak aplikatu, ordainketen jarraipena egin, balizko errekurtsioei erantzun eta bai aurrez aurreko bai telefono bidezko arreta indartu behar baititu. Lanbidek berariazko prozedura bat du bere Diruzaintzari dagozkion prestazio-zorrak zatikatzeko eskaerak izapidetzeko eta ebazteko.

## GOGOETA JUSTIFIKATZEN DUTEN DATUAK

Arazoaren garrantzia dela-eta, komeni da gogoeta instituzional bat abiaraztea. Argitaratutako datuen arabera, Lanbidek DSBEa jasotzen dutenei egindako bidegabeko ordainketen zenbatekoa 2023ko 40.000 kasu ingurutik 2024ko 8.000 kasu baino gutxiagora murriztu da. Nolanahi ere, gaur egungo erronka nagusiak, oraindik ere, estatuko BGDarekin dagoen sinkronizazioan jarraitzen du.

BGDaren eta DSBEaren arteko sinkronizazioari espezifikoki lotuta, 2024an eragindako 4.569 pertsona informatu dira, eta 2023an 6.908 pertsona. Murrizketa positiboa den arren, zorra, larritasun soziala eta administrazio-lana eragin dezaketen milaka espediente geratzen dira oraindik.

Beraz, ez gaude kasu isolatuen aurrean, baizik eta arau-ikuspegitik erantzun selektibo eta bermatzailea eskatzen duen fenomeno baten aurrean.

## HORRELAKO NEURRI BATEN ONDORIO POSITIBOAK

Gure ustez, ondo planteatutako barkamen-neurri bat, beharrezkoa ez ezik, oso positiboa ere izango litzateke, bai eragindako pertsonentzat, bai Lanbiderentzat, bai EAEko gizartearentzat oro har.

### ERAGINDAKO PERTSONENTZAKO ONURAK

- ✓ Segurtasun ekonomikoa: Onura nagusietako bat familia zaurgarrien zor-karga arintzea litzateke, kontuan hartuta zor horiek ez direla iruzurrezko jokabideen ondorio, baizik eta erakundeen arteko koordinazio-arazoen emaitza. Kasu askotan, zor horiek –zatikatuta daudenean ere– hilabete edo urteetan zehar diru-sarrera are txikiagoekin bizitzera behartzen dute jendea.
- ✓ Larritasuna eta administrazioarekiko beldurra murriztea: Zor-erreklamazioek antsietatea, erruduntasun-sentsazioa eta etorkizuneko prestazioak galtzeko beldurra eragin ohi dituzte. Konponbide argi batek aukera emango luke iruzurrezko jokabideak eta akats administratiboak bereizteko, eta saihestu egingo luke pertsona zaurgarriak zordun gisa tratatuak sentitzea biziraupenerako laguntza bat jasotzeagatik.
- ✓ Sistemarekiko konfiantza handiagoa: Horrelako neurri batek indartu egingo luke diru-sarrerak bermatzeko sistemaren sinesgarritasuna, erakutsiko lukeelako ez dela soilik akatsak kontrolatzeko tresna bat, baizik eta baduela horiek zuzentzeko gaitasuna ere. Konfiantza instituzionalak gora egiten du herritarrek ikusten dutenean Administrazioak proportzionaltasunez eta justiziaz jarduten duela.
- ✓ Pobretze erantsia prebenitzea: Zaurgarritasun-atalaseen azpitik dauden familiei zenbateko gehigarriak eskatzeak larriagotu egin dezake pobrezia, eta zailtasunak eragin ditzake etxebizitza, hornidura, elikadura edo zaintza-beharrek asetzeko, gizarte-egoera larriagoak sortuz. Horregatik, barkamen selektibo batek saihestu egingo luke bazterketa prebenitzeko prestazio batek are bazterketa handiagoa eragitea.

### LANBIDERENTZAKO ONURAK

- ✓ Administrazio-karga arintzea: Zor bakoitzak zenbait kudeaketa-lan sortzen ditu: kalkulua, jakinarazpena, jarraipena, arreta, zatikatzeko-prozesuak, berrikuspenak eta balizko alegazio nahiz errekursoak. Milaka espediente egiturazko kausa beraren ondorio direnean, horiek guztiak banan-banan kudeatzea ez da efizientea. Neurri selektibo batek aukera emango lioke Lanbideri baliabide gutxiago eskaintzeko kobratzen zailak diren zorak berreskuratzeke, eta, aldi berean, indarrak bideratzeko kudeaketa hobetzeko, laguntza indartzeko, laneratzea sustatzeko eta erabiltzaileentzako arreta optimizatzeke.
- ✓ Langile publikoen erabilera hobea: Zenbait zor kudeatzeak eta zatikatzeak eta haien jarraipena egiteak administrazio-kostu handia eragin dezake, bereziki zordunen ordainketa-ahalmena mugatua denean. Kasu batzuetan, litekeena da berreskuratze-ahaleginen kostuak ez konpentsatzea itzulera erreala.
- ✓ Auziak eta erreklamazioak murriztea: Araugintza-konponbide argi batek murriztu egingo luke administrazio-errekursoen, kexen, prozedura judizialen eta banakako erreklamazioen kopurua. Halaber, segurtasun juridiko handiagoa eskainiko lieke Lanbideko langileei, irizpide homogeenak aplikatzeko aukera emanez, antzeko kasuak banan-banan konpontzen ibili beharrik gabe.

- ✓ Irudi instituzionala hobetzea: Lanbidek indartu egingo luke bere irudi instituzionala, iruzurrezko jokabideak eta fede onez egindako jardunak argi bereizten dituen neurri bat bultzatu edo sustatuko balu. Horrek Administrazio zehatzaile soilaren pertzepzioa murrizten lagunduko luke, eta, aldi berean, eskubideak bermatzeko zerbitzu publiko gisa duen zeregina sendotuko luke.

#### EAE-KO GIZARTEARENTZAKO ONURAK

- ✓ Gizarte-kohesio handiagoa: Gizarte kohesionatu batek ez ditu Administrazioaren koordinazio-hutsegiteengatik pertsona zaurgarriak zigortzen. Zor horiek ebatzeko mezu argi bat igorriko luke: EAEko erakundeek fede onez jarduten duten pertsonak babesten dituzte, eta, aldi berean, irmotasun zehatzailea mantentzen dute benetako iruzur-kasuetan.
- ✓ Gastu publikoaren efizientzia hobetzea: Zenbait zor barkatzea edo artxibatzea ez litzateke ulertu behar «berreskuratu gabeko diru» gisa, baizik eta administrazio-kostuen aurrezpen gisa, auzien murrizketa gisa eta kudeaketa-efizientziaren hobekuntza gisa. Izan ere, diru publikoa berdin-berdin xahutzen da baliabideak prozesu luze, konplexu eta sozialki kaltegarrietan dirua berreskuratzeko erabiltzen direnean.
- ✓ Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema indartzea: DSBEda EAEko gizarte-ereduaren oinarritzko politika bat da. DSBEdaren eta BGDaren arteko bizikidetzatik eratorritako arazoak modu egokian konpontzeak sistema modernizatzen lagunduko luke, Estatuarekiko koordinazioa hobetuz eta erabiltzaileak administrazio desberdinen artean harrapatuta geratzea saihestuz.
- ✓ Prestazioen hartzaileen desestigmatizazioa: Bidegabeko ordainketei buruzko eztabaida, askotan, iruzurrezko jokabideen diskurtsoarekin nahasten da. Neurria behar bezala azaltzeak aukera emango luke bi errealitate horiek bereizteko: iruzur-kasuak daudenean, horiek behar bezala pertsegitzea; eta, aldi berean, Administrazioaren atzerapenek eragindako zorrak ez erreklamatzeko zuzentasunez jardun duten pertsona zaurgarriak.

## 1. ERANSKINA:

### PERTSONEK EAPN-K GARATUTAKO PARTAIDETZAZKO PROZESUETAN EMANDAKO ARGUDIOAK, ASKOTAN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN LANKIDETZAN

---

Euskadiko diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGD) bidegabeki kobratzeagatik sortutako zorrak barkatzeko proposamenaren oinarria da, besteak beste, administrazio-atzerapenek –eta ez iruzurrezko jokabideek– sortutako egoeretan irteera bidezkoa eskaintzeko beharra.

Ondoren, partaidetzazko kontsulta-prozesuen txostenetatik ateratako ideia batzuk jaso dira, proposamenaren argudioak eta onurak indartzen dituztenak:

#### 1. Larritasuna eta administrazioarekiko beldurra» murriztea

Proposamenak azpimarratzen du zor-erreklamazioek antsietatea eta etorkizuneko prestazioak galtzeko beldurra eragin ohi dituztela. Kontsulta-prozesuetako txostenek errealtate emozional hori berresten dute:

- Antsietatea akatsaren aurrean: DSBEaren erabiltzaileek kezka handia adierazten dute betebeharrak ez betetzeari buruz, baita nahi gabe bada ere. Horrek antsietate-egoerak sortzen ditu, «zerbait ondo ez egitearen» beldurraren ondorioz.
- Segurtasunik eza prestazioa berritzean: Prestazioa berritzeko prozesua ere ezinegon-iturri da, diru-sarrerak galtzeko beldurragatik, eta sentimendu hori areagotu egiten da ustekabeko zor-erreklamazioen ondorioz.
- Jakinarazpenen eragina: Administrazioaren komunikazioak askotan ulertezintzat hautematen dira, eta maiz etenaldietan edo zor-egoeretan zentratzen dira. Horrek pertsonen autonomia murrizten du, eta sistema «etsai» gisa hautematea eragiten du.

#### Erreferentzia:

- DSBEari buruzko partaidetzazko kontsultaren txostena, 2022. urtea.

#### 2. Segurtasun ekonomikoa eta pobretzea prebenitzea

Proposamenak argudiatzen du pertsona nahiz familia zaurgarriei zorrak erreklamatzekak pobrezia larriagotzen duela. Parte-hartzaileen lekukotasunek hala berresten dute:

- Aurrezteko gaitasunik eza: DSBEa jasotzen duten pertsonek adierazten dute «egunean» bizi direla eta ez dutela aurrezteko ahalmenik ezusteko gastuei edo zorrei aurre egiteko.
- Oinarrizko premiei eragiten dieten zorrak: Bidegabeko ordainketengatik zorrak eguneroko bizitzan (fakturak, alokairua) zuzenean eragiten duen karga gisa deskribatzen dira. Inklusio-zerbitzuetan antzematen da neurrigabeak direla mantenuari edo ostatuari eragiten dioten «zigor» ekonomikoak.
- Zenbatekoak nahikoak ez izatea: Erabiltzaile gehienek iritziz, DSBEaren zenbatekoa txikia da, eta horrekin ere zailtasunak dituzte hilabete-amaierara iristeko; beraz, zorrarengatik deskontu orok arrisku larrian jartzen du beren biziraupena.

#### Erreferentziak:

- DSBEari buruzko partaidetzazko kontsultaren txostena, 2022. urtea.
- Inklusio-zerbitzuei buruzko partaidetzazko kontsultaren txostena, 2025. urtea
- Inklusio-zerbitzuei buruzko Elkarrizketa Gunearen azken txostena, 2026. urtea.

### 3. Sistemarekiko konfiantza eta humanizazioa

Administrazioaren akatsen ondoriozko zorrak barkatzeak konfiantza instituzionala indartuko luke. Txostenek adierazten dute arlo horretan ez dagoela sintonia onik:

- Sistemaren zurruntasuna: Kexa orokorra dago Administrazioaren zurruntasunari buruz, ez dituelako behar bezala kontuan hartzen kasu bakoitzaren berezitasunak.
- Tratua eta entzute aktiboa: Erabiltzaileek tratu onbera eta enpatia baloratzen dituzte beste alderdi guztien gainetik. Barkamen-neurri batek frogatuko luke Administrazioak justizia-ikuspegitik jarduten duela, eta ez soilik zehapen-izaerako ente gisa.
- «Administrazio-isiltasunaren» pertzepzioa: 2026ko elkarrizketa estrategikoaren lehentasuna da bizi-larrialdiari egokitzen ez zaion burokrazia motela ezabatzea, eta barkamen-proposamenak zuzenean jorratzen du alderdi hori, blokeatuta dauden zorrak konponduz.

#### Erreferentziak:

- DSBEari buruzko partaidetzazko kontsultaren txostena, 2022. urtea.
- Inklusio-zerbitzuei buruzko Elkarrizketa Gunearen azken txostena, 2026. urtea.

### 4. Administrazio-efizientzia eta argitasuna

Proposamenak iradokitzen du egiturazko arrazoiengatik sortutako milaka zor-espediente kudeatzea ez dela efizientea Lanbiderentzat. Kontsultek kolapso hori agerian uzten dute:

- Profesionalen gaitasuna: Bai gizarte-zerbitzuetan, bai Lanbiden, erabiltzaileek hautematen dute profesionalak gaitasuna daukela; horrek izapideak moteltzen ditu, eta administrazio-akats gehiago sortzen ditu.
- Zatikaketa eta koordinaziorik eza: Sistema desberdinen (osasuna, gizartea, enplegua) eta administrazioen arteko elkarrizketa eraginkorrik ez egotea oztopo nagusietako bat da. DSBEa eta BGDa gainjartzearen ondoriozko zorra da, hain zuzen ere, barkamen-proposamenak arindu nahi duen koordinazio-falta horren erakusgarri nagusia.

#### Erreferentziak:

- Bilboko Udaren gizarte-zerbitzuei buruzko partaidetzazko kontsultaren txostena, 2023. urtea.
- Inklusio-zerbitzuei buruzko Elkarrizketa Gunearen azken txostena, 2026. urtea.

### 5. Prestazioen hartzaileen desestigmatizazioa

Proposamenaren helburua akats administratiboa eta iruzurrezko jokabideen diskurtsoa bereiztea da. Txostenek estigma handia jartzen dute agerian:

- Gizarteko aurreiritziak: Erabiltzaileek sentitzen dute gizarteak iritzi txarra duela beraiei buruz, «laguntzetatik bizi direlakoan» edo «parasitoak direlakoan».
- Eskubidearen bidez duin bihurtzea: Aurrera egin behar da zerbitzuak eta prestazioak eskubide gisa ulertzen, eta ez baldintzatutako emakida gisa; eta ikuspegi hori indartu egiten da Administrazioak bere desoreka propioak aitortzen eta onartzen baditu, erabiltzaileak zigortu beharrean.

Laburbilduz, entzute aktiboko txostenek proposamenerako oinarri gizatiarra eskaintzen dute: administrazio-zorra ez da espediente bateko zenbaki bat bakarrik, baizik eta EAEko herritar zaurgarrien artean beldurra, pobrezia eta gizarte-estigma betikotzen dituen faktore bat.

#### Erreferentziak:

- Inklusio-zerbitzuei buruzko partaidetzazko kontsultaren txostena, 2025. urtea
- Inklusio-zerbitzuei buruzko Elkarrizketa Gunearen azken txostena, 2026. urtea.